

JOSE MARI LARRARTERI

Euskaltzaindiko Azkue bibliotekara bazoaz, irakurle, Jose Maria Larrarte Garmendia ohorezko euskaltzainaren fitxa eskatzera, Josunek nahiz Nerek erarik atseginean lortuko dizute. Behin eskuan duzunean baina, konturatzen zara laukitxo bakarra dutela bete gabe, dioena Heriotza Eguna.

Behin honezkero, hori ere betea dute, betea du Larrartek, -Ilaunbe eta Lar-Gar ere ezizentzat darabiltzan euskalariak- 2004-10-23an, gu utzirik habia hutsari begira..

Uraz handiko gunetarako azken tren Larrartenean jarri naiz haren aurrez aurre barriketan jarduteko, eta tunela baino zertxobait lehenago jatsi. Agurrean, gaixo larriak ez du irribarrerik galdu.

“Giputxa naz, Bidaniakoa; han goikoa; haize handiak ibiltzen dira; leku askotako haizeak etorten dira”. Txukun zer Larrarte honek bizkaiera!

“Frailetzara osabeak eroan ninduan, bera bere pasionista zan eta”. Nik ez delakoan, zehar begirada zuzendu diot; dolore keinua eta irribarrea aurpegi berean, segundukako txandatan; mina berezkoa, irribarrea borondatezkoa; hori adorea, ohorea!

“Gabiriatik Angostora, nobiziadutzara. Hortik Galiziara Melidera. Han filosofia ikasi neban, geure probintziakoa da eta. Galiziatik Deustura, hona San Felizisimora teologia ikastera, lau urtez. Gero lehenengo mezea -1949an-; orduan guk ez genduan herrian emoten; ikastetxean emon neban, Gabirian eta bertan irakasle”.

“Hortik Afrikara soldadu, Melillara, 1950ean, 24 urte gaz. Bi urte gin behar nebazan, baina bat bete neban. Eskolea emoten neutsen analfabetoei eta dotrinea be bai, lehenengo jaunartze-ko dotrinea; soldadu asko egoan Jaunartzea egin bakoa”.

Soldadutzatik atzera Gabiriara eta 1956an Eubara irakasle. Ostean, barrero Afrikara kapellau ze, Konkordatoaren arabera, joan egin behar izaten eben, eleizbarrutiko batek, ordena bakotzeko batek, txandaka. Gure kurtsoari tokau jakon eta kurtsokoen artean, ba, neuri, lehen egonekoari. Barrero hara!^a

Berez, han soldadutzea egin ezkerro, libre zara. Orduan nik Madrilera idatzi eta libre!

“Handik itzultzean, Eubara, pasionistetara eta Eubatik Irunera, osasunagaitik, deskantsua behar nebala medikuak esanda. Kurtso pare baten Irunen ibilita, Urretxura, ikastolara irakasle, dotrinea, euskera-eta emoten”.

“Urretxutik Iruñera ze han ikastaroak antolatzen ziran udan, hamabost egunekoak, hiru astekoak. Irakasten ziran, morfologia, aditza...Hezkuntzako zuzendaritzak eta Diputazioak antolatzen ebezan 1973an. Bide batez, Filosofia y Letras, Romanicas ikasten neban eta ikastolan 17:00ak arte. Hizkuntza Erromanikoak Deustuko Unibertsitatean ikasi nituan”.

Jose Maria Larrarte Iruñean, Nafarroako Diputazioak antolatutako Euskal Ikastaroen antolatzailer eta irakasle izan zen, hiru urtez. Gero, 1977tik 1989ra Nafarroako Diputazioak antolaturiko Udako Ikastaroetan zuzendari izan zen. Jabierko Irakasle Eskolako Euskararen Katedraren arduraduna eta irakaslea ere izan zen 1976-77ko ikastarotik 1981eko ikastarora arte. Katedra

horren arduradun, antolatzaile eta irakasle ere izan zen 1977tik gora, hots, eskola hori sortu zenetik. Gasteizko Hizkuntza Eskolako euskarako irakaslea ere izan zen.

“Maisu Eskolan euskarako katedra sortu dugu eta zeuk ardua hartuko bazenu” esan eustienez, Urretxutik Maisu Eskolara joan nintzan, martxan jartzera, irakasleak topau-eta”.

“Iruñean, 1976tik 1982ra arte Udako Ikastaroen ardua be neuk eroan neban; goi mailak emoten nebazan”. 380 ikasle izan ziran azken urtean paseak eta ni joan nintzanean, dana jausi zan goitik behera. Klaseak ziran urtean zehar zapatu goizetan, eta gero, udan”.

Jose Mari Larrarte aldi horretan jaso zituen kritikengatik, oztopoengatik –euskaral munduko jendearengandikoengatik- oso, erabat saminduta agertu zait eta oren horretan, honelako hagin-ean, halako zorian doan bidaiariaren berba amaierakoa ez da txantxetan bihotzetik ahora jalgiko. Ez letorkiguke batere gaizki kronika-auto/heterokritikoa idaztea, inor, inoiz ausart bale- di. Euskaltzaleok euskalgintzako historiaren atal idatzi bat gor- deko genuke. Larrarteren mailako euskaltzaleek merezi dute.

Eusko Legebiltzarra eratu zenetik bertako bat-bateko itzul- tzailea eta testu idatzietakoa izan zen –1980tik 1985era-, baita Legebiltzarrean sortzen ziren testuen zuzentzailea ere –1985etik 1990era-.

“Gasteizko Legebiltzarretik deitu eustien, Josu Oregik. Artean, astea Iruñean pasatzen neban eta astegoiena Tafallan; une horretan aste guztian Gasteizen eta zapatuetan Bergaran UNEDen”.

“Legebiltzarrean bat-bateko itzulpena, lan gogorra lehenen- go esperientzia, ikustera joan nintzanean: “Orain zeuk itzuli!” Ezer esan barik! Puf! Busti-busti eginda gelditu nintzan. Presinoa! Han hamar urte itzultzaile, bost batean eta beste bost erredaktore, euskara eta erdara”.

“Jubilau nintzanean, urte bete Erromara artxibistika ikastera, Archivo Vaticano-an, italianoz”.

“Nire berbetak, euskara, gaztelera, frantsesa, latina, grekoa, italianoa; zazpigarren berbeta ingelesa egiten jardun nintzan, baina astirik ez!”.

“Erromatik pasionisten Deustuko artxibora; hortik Tafallara, lehorragea osasunerako; eta gero, Gasteizeko konbentura eta handik azkenengoetan hona, Deustuko pasionistetara”.

“Neure bizitzan harrigarriak asko, ezin ikusiak-eta”.

“Gora jo nahia..., nik ez dot goserik emon toki bilal!”.

“Euskaltzaindira hurreratu nintzan, ba, beti izan dot zaletasuna euskara kontuetan-eta: gramatikan, Gramatika Batzordean, lexikoan...Euskaltzaindia ezagutu barrutik, Iruñean hasi nintzanetik”.

Arterago aipatu dugunez, Erromanikak Deustuko Unibertsitatean egin zituen eta Euskal Filologia Euskal Herriko Unibertsitatean. Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean egin zuen tesina: *Bait-Tartasem Ontsa hiltzeko Bidea-n*” izenburukoa, 1983an.

“Mitxelena ondo ezagutu neban, tesina berak zuzendu eustan: “Oso ondo, oso ondo” esan eustan. Tesia egiteko, kurtsiak-eta egin arte, astirik ez”.

Larrarteren bizitzako zertzeladen iruzkina erreza da eta “astirik ez” perpausa behin baino gehiagotan errepikatzen du, hala ingelesa menperatzeaz diharduenean, nola orain tesiaz ari denean, eduki ere inork eduki badu egun betea gizon honek eduki du, hainbestera non ekintzara makurtu duen aintza -pertsionala-.

“Bizitzan egin diran gauza guztien artean, harrotasuna euskara irakasteagaitik, hor mugitu naz ni eta; nire jatorrizko hizkuntza euskara da eta”.

“Sinestedunak eta sineste bakoak desbardinik ez gauza ona bada; bardin da batak egin zein besteak egin. Euskara irakastea, ez dakianari irakastea da. Nik uste ona dala, kristinauak egitekoa da”.

“Gu familia apalekoak izan gara”.

“Zein liburuk eragina niregan? Euskararen munduan..., orduan ia libururik ez zanean, nik Lizardi irakurtzen neban asko; poesiak be egin nebazan eta Orixeri erakutsi neutsazan. Ni Gabirian nengoan eta Orixe Lazkaon eta harremanak izan nebazan, joan egin nintzan ea zer dinoan: “Badakizu noren ikutua ikusten dodan? –esan eustan Orixek, Lizardirena. Horrek poesiok Eusko Gogoara atarateko bialdu eta galdu edo”.

“Nik ez dot diariorik idatzi, otoitzik be ez”.

“Otoitzak irakurten dituzunean, horrek bide emoten deitsu barrutik urteten daben otoitzak egiteko. Bakotxak bereak ditu eta nik ez ditut idatzi; bakotxak sentitzen dauana”.

“Jainkoa topetako erlijinoan, barruan hartu behar da oina Jainkoaren harremanetarako. Ni ez naz izan inori kontatzekoa, sasoi baten zuzendari espiritualari ez bada”.

“Eleizaren eta Jainkoaren aurkako erasoetan-eta, askotan norberak izan dituan esperientzia txarregaitik-eta, orduan, ba...”

“Sinesten ez dauanari nik itaundu egingo neuskio, ea zergaitik edo. Nik neuk konfiantza izan dot, erlijinoa izatea niregan familiakoa da”.

“Nik sinesten dot, ba, barruan sentitzen dodalako, eta arrazoiak be badagoz, batzuk ez dabe onartzen baina”.

“Honetan eredu, ba, ordenakoak, aita Erasmo, esaterako, esaten ebana praktikan bizi ebalako, errespetoa, apaltasuna-eta; bizitzako jokabidean”.

“Aita Gurea” errezatzea gogorra be bada, osasuna falta danean-eta; “Egin bedi zure nahia “ esatea gogorra da, ño! Halan

be, beste batek lehenagotik askoz gehiago sufridu eban eta hori bera esan, Jesukristok Jeseமானಿಕo baratzan; Hark baekian zer etorren!”.

“Hainbeste lekuko eta Biblia-eta egonda zelan ez dan sines-ten? Ba, bizitza bera, beti geroko itxi, baina geroko hori etorri egiten da, eta orduan zer?”.

“Norbera ondo dagoanean, ez gaixorik, errezago errezatzen da, baina hobeto ez dot uste. Barrutik esaten badozu txarto za- gozanean, hori hobeto; orduan badinozu *Egin bedi zure nabia*, hori da”.

“Euskararen mundua beti ikusi dot argi, zer egin behar do- dan; euskaran asko dira kontrakoak orain eta lehen be bai”

Larrarte 1959tik 1967ra arte Gabiriako eta Zornotzako –Euba– pasionisten ikastetxean euskara irakasle izan zen. Eubako ikastetxean, gainera, batxilergo arduraduna zela, eus- kara ikasteko unitate gehiago jarri zituen: bi unitate lehen bi ikasturteetan; hiru unitate hirugarren eta laugarren ikasturtee- tan eta lau unitate bosgarren eta seigarren ikasturteetan. Bestetik, euskaraz idazten trebatzeko, *Bidez* izeneko barne al- dizkaria sortu zuen eta ikasleak lan horretan gidatu eta lagun- du egin zituen. Horren ostean, *Laiaketan* aldizkaria sortu zuen, hau ere ikasleek idazten ikas zezaten laguntzeko.

“Nik telebistan egin neban alkarrizketa Iriondogaz beste go- rabehera batzuei buruz”.

“Nire ikasleen artean dira Jose Mari Iriondo, Zulaika, Xabier Mendiguren Bereziartu, Zeberio Jose Mari –grekoan-eta azka- rra- El Pais egunkariko zuzendaria. Azkarra zan mutil hori! Euskara be idatzi ederto!”.

“Ni beti ibili naz beharrean, neure gurasoak be bai; baserri- tarrak ziran. Aita azkarra zan, erdara be baekian eta. Amak ez ekian erdararik harean be, “si”, “no”, besterik ez, eta joaten zan Donostiara saltzen. Anaia ere azkarra, kontuak-eta buruz”.

“Aita azkarra zan. Nire aitaren aita hil zanean, paperak-eta egitera; ze letra! Zeozertxo kaputxinoetan, Iruñean edo ikasia zan”.

Halaxe idatzi zuen tesinan: “Lantxo honetan gaitzat sintagma mugagabea aukeratu dut, corpus-tzat, berriz, Tartas idazle zuberotarraren *Onsa hiltzeko bidia*”. Agurtu dudan moduan agurturik Jose Mari Larrarte hiltzeko zorian zena, ez nuke gehiegikeriarik esango badiot, ontsa joana dela, Tartasen izenburuaren arabera, izenburua bera somatizatu duen gizakiaren gisara.

“Biziak abandonatzen gütü sortzian tentazione orori, danjer orori, peril orori, herioak haietarik orotarik, hilzian delibratzen, ez denbora baten, baina jagoitiko”. (Tartas)

Uste osoa dut idatzi dudala Jose Mari Larrarteren gaineko artikulu hau bera zen bezalakoa zelako, benetan izanik, ez bailira bezala diren horietakoa zelako; erregeek, handikiek kronikalariak badituztelako, euskalgintzako Larrarte isilek omenaldia irabazia dutelako. Horregatik idatzi dudala uste dut.

“Nitaz ez gehiegi idatzi” esan zeunstan. Bete dot agindua? Agur!

Juan Luis Goikoetxea Arrieta